

## PROGRAMAREN DATU OROKORRAK

<b>Departamentua:</b>	05 - EKONOMIA SUSTAPENENKO ETA PROIEKTU ESTRATEGIKOETAKO
<b>Atala:</b>	0510 - Ekonomia Sustapeneko Zuzendaritza Nagusia
<b>Programa:</b>	120 - Internazionalizazio Jarduketa Sustatzea
<b>Funtzionala:</b>	433 - Enpresa garapena

### Programa mota:

Finalista

### Misioa:

Gipuzkoako enpresen nazioartekotzea sustatu, kanpora ireki daitezen lagunduz, hurbilketaren bidez, hazkundearen bidez eta nazioarteko merkatuetan egonkortzearen bidez, esportazioen balorea handitzeko batetik, eta kanpoan saltzen duten enpresa kopurua handitzeko bestetik.

### Egoeraren diagnostikoa:

Gipuzkoak, 2023. urtearen amaieran, BPGd-a % 1,9 hazi zen, eta enpleguak portaera ona izan zuen, pandemiaren aurreko mailak gaindituta; hala ere, eta beste adierazle makroekonomiko batzuk bezala, dezelerazio argia izan du aurreko urteekin alderatuta (+% 4,2 2022an; +% 5,9 2021ean).

Gogoan izan behar da ekonomiak 2020an izandako beherakada -% 9,9koa izan zela. Hala eta guztiz ere, susperraldian ondoz ondoko hiru urteei esker, 2023an, Gipuzkoako BPGd-a 2019ko maila baino +% 1,3 handiagoa izan zen.

2023an, Gipuzkoako enpresen salmentek % 2,9 egin zuten gora, eta 2022ko ekitaldiaren aldean dezelerazio argia izan zuten; orduan, guztizko salmentek hazkunde nabarmena izan zuten, +% 13,2koa, 2020ko pandemiak jarduera ekonomikoan eragindako gorabeherak oraindik ere eraginda.

Hazkunde handiagoa izan da barne-salmentetan (+% 4,2), esportazioak % 0,8 igo baitira.

2023an, nazioarteko testuingurua konplexua eta ziurgabetasun handikoa izan da. Gainera, gure bezero nagusiak diren herrialdeetako ekonomiak atzeraldi/geldialdi egoeran sartu dira. Ondorioz, esportazioen hazkunde oso txikia izan da: +% 0,8.

Testuinguru horretan, Gipuzkoako enpresen kanpo-merkataritzak erresilientzia handia erakutsi du, eta hazkunde ekonomikorako eta enplegua sortzeko palanka nagusietako bat izaten jarraitzen du.

2024ko lehen bost hilabeteetan, oro har, salmentek % 0,7 egin zuten gora 2023ko datuekin alderatuta (orduan, +% 4,1), baina Europar Batasunetik kanpoko esportazioek soilik eragin zuten hazkunde hori (+% 5,4); barne-salmentak, berriz, apenas igo ziren (+% 0,1) eta EBko salmentak -% 1,2 jaitsi ziren.

Gipuzkoako ekonomiak oso irekiera maila altua du kanpora: salmenten 100 eurotik 36,9 euro kanpoko merkatuetan bideratzen dira.

2008ko krisiaren aurreko aldietan esportazioen pisua % 25 ingurukoa zen; beraz, hamabost bat urtetan kanpoko salmentek 10 puntutik gorako pisu erlatiboa irabazi dute.

Gipuzkoako kanpo-salmentak ekipo-ondasunei lotutako industria-adarretan oinarritzen dira: makineria eta garraio-materiala esportazio guztien % 23,6 eta % 14,3 dira, hurrenez hurren; oinarritzko metalezkoak % 10,9 dira, metalezko gaiak % 8,9 eta merkataritza % 8,7. Bost adar horien artean, Gipuzkoako enpresen esportazioen % 66,3 metatzen dute.

Gipuzkoako enpresen esportazioen hiru helmuga nagusiak, ordena horretan, Frantzia, Alemania eta Erresuma Batua dira; guztira esportazioen % 34 baino gehiago dira. Baina horrek guztiak beste ondorio bat ere badu: Gipuzkoako enpresak oso sentikorrek dira herrialde horien bilakaera ekonomikoaren aurrean.

Esportazioen estaldura-tasa % 192 ingurukoa da.

### Beharraren deskribapen xehatua:

2023ko emaitza positiboak gorabehera (aurreko ekitaldietakoak baino askoz txikiagoak), 2024ko panorama oso nahasia da oraindik bai inflazioa geldiarazteko ekonomia hozteko hartzen ari diren

neurriengatik, bai herrialdeen artean barne-merkatuak babesteko nolabaiteko tentsio-igoeragatik.

2024ko lehen hilabeteetan, Gipuzkoako esportazioek gainbehera izan zuten aurreko urteko aldi beraren aldean, eta ohiko merkatuak moteldu egin ziren nolabait, eta Horrek erakusten du ohiko merkatuak moteldu egin direla eta beste merkatu batzuei heltzeko beharra dagoela.

Gipuzkoako enpresek beren merkatu tradizionalak sendotu behar dituzte, eta, aldi berean, merkatu horien alternatibak bilatu behar dituzte, eremu geografikoak dibertsifikatuz eta Europako herrialdeetakoak baino hazkunde- kuota handiagoak mantenduko dituzten herrialdeetan sartzearen aldeko apustua eginez.

Gero eta globalizatuagoa eta interkonektatuagoa den mundu honetan, nazioartekotzearen erronka funtsezko faktorea da enpresak mantendu, indartu eta hazteko. Azken urteotan, teknologiari esker kostu mota guztiak asko murriztu dira, eta horrek indartu egin du edozein enpresa, txikia izan arren, nazioartera zabaldu daitekeen ideia. Hala ere, badirudi datuek islatzen dutela enpresen dimentsioak eta tamainak bere garrantzia dutela.

2023ko datuek argi eta garbi erakusten dute enpresaren tamaina zenbat eta handiagoa izan, orduan eta gehiago saltzen duela kanpora. Hala, 250 langile edo gehiago dituzten enpresek salmenta guztien % 48,1 saltzen dute kanpo-merkatuetan, eta txikienetan, berriz, % 13,2.

Enpresek, halaber, salmenta-teknikak eta ohiko merkataritza-harremanen osagarriak edo alternatiboak ezartzeko premia dute, merkataritza elektronikoko eta marketin digitaleko elementuak txertatuz. Esparru horretan, gure enpresak, batez ere ETEak, atzeratuta daude gure ingurune hurbileko herrialdeekin alderatuta.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, dauden laguntzen programaren bidez nahiz Gipuzkoako Bazkondearekin duen hitzarmenaren bidez, enpresen zerbitzura jarri nahi ditu eraldaketa hori bizkortzen laguntzeko bitartekoak, bai esparru digitalean, bai nazioarteko merkatuetan egoteari dagokionez.

#### **Nori zuzendua:**

Gipuzkoako enpresak: ETEak eta OTEBak lehentasunez.

#### **Programaren estrategia.**

##### **1. Baliabideak (inputak):**

Langileak. Baliabide ekonomikoak. Laguntza teknikoak

##### **2. Garatu beharreko jarduerak/prozesuak:**

Gipuzkoako enpresak nazioartekotzen laguntzeko laguntzak diseinatzea eta kudeatzea.

Kanpoko merkatuetara jotzeko laguntza (merkataritza-harremanak eta laguntza publikoak kontuan hartuta) eta aukerak aztertzea eta hemengoan artean ezagutaraztea.

Nazioartekotze-eragileekin lankidetzan aritzea

##### **3. Ondasun eta Zerbitzuak (outputak):**

Dirulaguntzak

Informazioa nazioarteko merkatuei buruz

Nazioarteko merkatuetarako joateko babesak

Laguntza teknikoa

#### **Programaren arau esparrua:**

Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzak jasotzen dituen araudia. Administrazio arloko arautegi orokorra.

**Urteko helburua:** Gaitasun eta aukera lehiakorrak sustatzea sektore ekonomikoak sendotuz edota eraldatuz eta berriak bultzatuz.

Adierazlea	Neurri-unitatea	Helburu mota	Azken balioa	Aurtengo aurreikuspena	Urteko helburua	Agintaldiko helburua
Lagundutako nazioartekotzerako proiektu kopurua	Kopurua	>=	54,00	37,00	35,00	120,00
Berritzaileak diren ETEak (%)	Ehunekoa	=	0,00	0,00	0,00	0,00
Esportazioak (BPGaren %)	Ehunekoa	=	0,00	0,00	0,00	0,00
Foru Aldundiak sustatutako berrikuntza proiektuetan onuradun diren ETEei emandako laguntzen zenbatekoa eurotan (%)	Ehunekoa	=	0,00	0,00	0,00	0,00
Foru Aldundiaren proiektu estrategikoen esparruan sortutako edo bizkortutako enpresak	Kopurua	=	0,00	0,00	0,00	0,00

#### Helburuari lotutako ekintza lerroak eta ekintzak

##### 1. Ekintza lerroa:

Enpresen nazioartekotzeari laguntza ematea.



% 64,83



% 0,23

Ordainketa kredituak

Datozen urteetako gastuak

Sarrera lotua

Hasiera data

Bukaera data

Etorkizuna eraikiz

<b>Ekintza lerroa, guztira</b>	1.040.932,00	675.000,00		2025/01/01	2026/12/31
<b>1.1 Ekintza</b> Gipuzkoako enpresaren nazioartekotzea sustatzea	713.946,77	398.500,00		2025/01/01	2026/12/31
<b>1.2 Ekintza</b> Eragile sozioekonomikoekin hitzartutako ekintza, enpresa esportatzaileen oinarria handitzeko	324.478,00	275.000,00		2025/01/01	2026/12/31
<b>1.3 Ekintza</b> Programaren eragin linguistiko handiko kontratuetan edota dirulaguntzetan hizkuntza-klausula berriak txertatu.	2.507,23	1.500,00		2025/01/01	2026/12/31

## GENERO BERDINTASUNEN PLANA

**Programaren genero garrantzia:** Ertaina

**Programak ukitzen duen kolektiboa:**

Pertsona helduak

**Programak ukitutako gaitasuna(k):**

Diru-sarrerak eskuratzea

**Beharraren deskribapen xehatua:**

Basque Trade-k berriki egindako ikerketa baten arabera, emakumeek enpresa esportatzaileen guztizko enpleguaren % 29 baino ez dute ordezkatzen. Enpresen % 16 soilik dira emakumeak, eta zuzendaritza-taldeak osatzen dituzten pertsona guztien % 31,9 dira (enpresen % 32k ez du emakumerik zuzendaritza-taldean).

Oro har, emakumeen presentzia ez da hain estrategikoak eta erantzukizun txikiagokoak diren lanpostuetan oinarritzen (beste batzuk: finantzarioa, administrazioa...), eta presentzia erlatibo txikia dute diseinuaren, garapen estrategikoaren eta nazioarteko filialen arduradunaren arloetan.

Programa gauzatzean, genero-alderdiei buruzko informazioa eskatzen dugu, bai antolaketaren ikuspegitik, bai inplikaturako lantaldeen ikuspegitik. Genero-berdintasuneko politikekin lotutako proiektuen puntuazioan balorazio bat dago. Horren bidez, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren inguruan sentsibilitate handiena duten enpresei lagundu nahi zaie.

<b>Kuantifikazioa:</b>	23.114,03	( % 1,35 )
<b>Ordainketa kredituak:</b>	13.629,03	( % 1,31 )
<b>Datozen urteetako gastuak:</b>	9.485,00	( % 1,41 )

Kategoria	Nola	Nola %	Esleitutako adierazlea
Go.HO.1.2. 2/2015 Foru Araua eta Euskadin indarrean dagoen emakumeen eta gizonen berdintasunerako legea garatuta, konpromiso politikoa zehaztea.	Go.1.2.3. 2/2015 Foru Arauarekin bat etorrira, emakumeen eta gizonen berdintasunerako politika sustatzeko eta garatzeko GFAk bereizten duen aurrekontua progresiboki egokitzea.	( % 100,00 )	



## HIZKUNTZA BERDINTASUNeko PLANA

### Beharraren deskribapen xehatua:

Dirulaguntza eskatzaileekin lehenetsi harremana euskaraz izatea.

Diruz lagundutako jardueren gizarteratze prozesuetan euskararen presentzia bermatzea.

Kategoria	Nola
6.- Hizkuntza-klausulak	6.- Hizkuntza-klausulak

GJH



**Beharraren deskribapen xehatua:**

Enplegu duina eta giza hazkundera sortzea, hazkunde ekonomiko jasangarria sustatuz produktibitate-mailak eta berrikuntza teknologikoa areagotuz, eta, era berean, enpresa-espirtua eta kalitatezko enplegua sortzeko politikak sustatuz, desberdintasun sozialak murriztea ahalbidetuz.

Hori guztia Etorkizuna eraikizek bultzatutako elkarlaneko gobernantzaren kontzeptuaren esparruan, politika publikoen diseinua eta eraginkortasuna hobetzeko.

**Kuantifikazioa:** 1.116.454,00 ( % 65,06 )

**Programari lotutako GJH zerrenda**

GJH, Helburu eta Ekintza lerroak		Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak
	8-Lan duina eta hazkunde ekonomikoa Guztiantzako hazkunde ekonomiko jarraitua, inklusiboa eta jasangarria, enplegu betea eta produktiboa nahiz lan duina sustatzea.	<b>713.946,77</b>	<b>398.500,00</b>
<b>Helburua</b>	8.02 - Produktibitate ekonomikoaren maila handiagoak lortzea, dibertsifikazioaren, modernizazio teknologikoaren eta berrikuntzaren bidez, besteak beste, balio erantsi handia duten eta eskulan asko erabiltzen duten sektoreei arreta eskainiz.	713.946,77	398.500,00
<b>Ekintza lerroak</b>			
	Enpresen nazioartekotzeari laguntza ematea.	713.946,77	398.500,00
	18-kultura eta hizkuntza aniztasuna 18-kultura eta hizkuntza aniztasuna	<b>2.507,23</b>	<b>1.500,00</b>
<b>Helburua</b>	- Minorizazio-egoeran dauden hizkuntzak dituzten komunitateak ahalduntzea eta ikusaraztea, identitate desberdinak indartzeko.	2.507,23	1.500,00
<b>Ekintza lerroak</b>			
	Enpresen nazioartekotzeari laguntza ematea.	2.507,23	1.500,00
<b>Guztira</b>		<b>716.454,00</b>	<b>400.000,00</b>

**PROGRAMAREN AURREKONTUAREN LABURPENA / RESUMEN DEL PRESUPUESTO DEL PROGRAMA**

Gastuen kapituluak / Capítulos gastos	2025	Datozen urteetako gastuak/Gastos Futuros				
		2026	2027	2028	2029 eta hurrengoak/ 2029 y siguientes	Guztira / Total
1. LANGILERIA GASTUAK GASTOS DE PERSONAL						
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS						
3. FINANTZA GASTUAK GASTOS FINANCIEROS						
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK TRANSFERENCIAS CORRIENTES	825.923,00	575.000,00				575.000,00
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS						
<b>Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes</b>	<b>825.923,00</b>	<b>575.000,00</b>				<b>575.000,00</b>
6. INBERTSIO ERREALAK INVERSIONES REALES						
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK TRANSFERENCIAS DE CAPITAL	215.009,00	100.000,00				100.000,00
<b>Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital</b>	<b>215.009,00</b>	<b>100.000,00</b>				<b>100.000,00</b>
8. AKTIBO FINANTZARIOAK ACTIVOS FINANCIEROS						
9. PASIBO FINANTZARIOAK PASIVOS FINANCIEROS						
<b>Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras</b>						
<b>Guztira / Total</b>	<b>1.040.932,00</b>	<b>675.000,00</b>				<b>675.000,00</b>

Planen zenbateko osoa, kapituluka / Total planes/capítulos	Ordainketa kredituak / Créditos de pago		Datozen urteetako gastuak / Gastos futuros		Guztira / Total	
	Estrategikoa / Estratégico	Operatiboa / Operativo	Estrategikoa / Estratégico	Operatiboa / Operativo	Estrategikoa / Estratégico	Operatiboa / Operativo
1. LANGILERIA GASTUAK GASTOS DE PERSONAL						
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS						
3. FINANTZA GASTUAK GASTOS FINANCIEROS						
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK TRANSFERENCIAS CORRIENTES	825.923,00		575.000,00		1.400.923,00	
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS						
<b>Eragiketa arruntak, guztira</b> <b>Total operaciones corrientes</b>	<b>825.923,00</b>		<b>575.000,00</b>		<b>1.400.923,00</b>	
6. INBERTSIO ERREALAK INVERSIONES REALES						
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK TRANSFERENCIAS DE CAPITAL	215.009,00		100.000,00		315.009,00	
<b>Kapitaleko eragiketak, guztira</b> <b>Total operaciones de capital</b>	<b>215.009,00</b>		<b>100.000,00</b>		<b>315.009,00</b>	
8. AKTIBO FINANTZARIOAK ACTIVOS FINANCIEROS						
9. PASIBO FINANTZARIOAK PASIVOS FINANCIEROS						
<b>Finantza eragiketak, guztira</b> <b>Total operaciones financieras</b>						
<b>Guztira / Total</b>	<b>1.040.932,00</b>		<b>675.000,00</b>		<b>1.715.932,00</b>	